



Oier Gorosabel
Fisioterapeuta eta osteopata

Kristau suizidak (hipotesia)

EAko Fisioterapeuten Elkargoa intrusismoaren aurkako kanpaina betean dabilela -beharbada ikusi dituzue Espido Freire, Juan Martinez de Irujo eta Julian lantziren bideo dibertigarriak (gaztelaraz, nola ez)-, hemen nator ni psikologoaren arloan berriro sudurra sartze-
ra. Baina lasai: gauza bat inoren arlo profesionala inbaditzea da, eta, bestea, berriz, diziplinen arteko muga lausoe-
tan egiten den elkarlana. Gaurkoak azken hori izan nahiko luke.

Askotan aipatu dugunez, gorputza eta gogoa ez daude bereizita. Helburu didaktikoez eta praktikoez maila psikikoa eta fisikoa aparte ikertzea eramaten bagaituzte ere, eguneroko martxan gure burmuinaren egoerak eta gure gorputzeko ajeak lotuta dabilta, une oro eta eten barik. Lotura hori konplexua da, jakina, eta gauza asko esan daitezke horri buruz. Gaur, oster, fisioterapeuten eguneroko lana asko baldintzatzen duten pare bat fenomeno aipatuko ditugu bakarrik: minaren pertzepzio maila eta erantzun autoimmuneak. Amaitzeko, espekulazio txiki bat egingo dut.

Minaren pertzepzio maila ez da beti berdina. Gure eguneroko bizitzan, gure gorputza suntsitzen eta berregiten ari-
tzen da etengabe. Kirolak, laneko mugimenduek... gorputza higitzen dute, baina gure zelulek segituan konpontzen dituzte hautsitako egiturak. Prozesu horrek ez du ez hasierarik ez amaierarik: etengabe ari gara mantenu lan horretan, gu konturatzen ez bagara ere. Zergatik ez gara konturatzen? Gure gorputzak “minaren pertzepzio maila” bat duelako: jasandako lesioak maila horren azpitik badaude, ez ditugu igarriko; triskantza handiagoa izan bada, berriz, maila gaundituko da eta orduan hasiko gara mina sentitzen. Gorputza-
ren abisua da, kontuz ibil gaitzean eta lesioa hobeto senda dadin.

Minaren pertzepzio maila jaso edo jaitsi egin daiteke: fakirrek, adibidez, ez-patarekin zulatuta ere minik ez sentitu arte jasotzen ikasi dute. Eta alderantziz: depresioak jota dauden lagunek, esate baterako, minaren pertzepzio maila beherago dute, eta normalean igarriko ez

lituzketen lesio txikiek ere min handia ematen diete. Hori kontrolatzen ikastea oso interesgarria da min kronikoa duten pertsonendako.

**Erantzun autoimmuneetan, berriz, gorputzak bere buruari erasotzen dio. Arazoak forma ugari izan ditzake (artritis erreumatoidea, lupus eritemato-
**soa, distrofia sinpatiko erreflexua...), baina, funtsean, denetan gauza ber-
**tsua gertatzen da: gorputzak norbere zelulak suntsitzen ditu arrotzak balira bezala. Zientzia aldetik ez da ongi
**ezagutzen gaitzon fisiopatologia (eta gutxiago soluzioa), baina argi dirudi
**arazo psikikoez pisu handia dutela mota honetako gaixotasunak garatze-
rakoan.**********

Orain espekulazio txiki bat. Gauza jakina da Euskal Herrian kristau ugari da-

goela. Asiar jatorriko erlijio honen jarraitzaile askok norbere sufrimendua goستن dute, baina, era berean, beren burua hiltzea debekatuta dute. Nire us-
**te apalean, horrek arrazoirik gabeko hainbat osasun arazo eta minekin zeri-
kusia izan dezake. Hau da: pertsona hauek beren burua zigortzeko sortuko lukete mina, adibidez, goian esandako mekanismoak erabiliz. Hitz tekniko-
**goa erabilia, arazo psikologiko bat so-
**matizatu egingo lukete: erruduntasun sentimenduak, norbere burua sobran
**ikustea... edota hiltzeko desioa pitz de-
zakeen beste edozein arrazoi. Horra ni-
re hipotesia. Orain, lankide psikologoek esango dute ea inolako zentzurik duen edo kokotekoa merezi dudan horrelako astakeriak esateagatik. •********

<http://fisiolantaldea.blogspot.com>



Burmuinaren egoera eta gorputza ren ajeak lotuta doaz. THINKSTOCK